

## **Bakea lurrean**

*Euskaldunon Egunkaria*, 1993-09-13: 2.

Orain bi mila urteko hitzak dira; denok goraiatuak, baina gutxik kunplituak, eta hara gaur lurra indarkeriaz josia. Halere bada bakea pizten ahalegintzen ari denik, eta gaur bertan Jesus jaio zen lurretan. Gure herri katolikoan, berriz, gerra bizian oraindik. Gaurkoak izen propioa ere badu: "Julio Iglesias Zamora": bahitua izan zen orain bi hilabete t'erdi eta kupidarik gabe preso daukate oraindik. Gure lotsarako. Baina ez da bakarra. Estatu osoan sakabanatuak dauzkate presoan gurasoek bere semeak sarriegi bisita ez ditzaten. Eta bahituarekin sentitzen naiz sekuestratua, presoarekin sentitzen naiz preso eta senide horiekin jartzen naiz guraso bezala minetan. Edozerk hunkitzen nau. Ez dut erremediorik, nonbait! Sarri entzuten ditut batetikan bestera dauden diferentzien azalpenak: Juliok ez zuen txarrik egin, eta beste guraso hauen semeek bail; hala izanik ere, zer egin dute txarrik presoan gurasoek! Hemen zeharkako zigor hau demokratikoa bada, Franco salbu da zeruan. Bada beste bereizgarrikerik ere, gaurko biolentzia honen haziak, noiztik ari gara euskaldunok gure lurretan euri pozondua bezala jasaten! Izenak: zerrenda luzea egin dezake herri honetan memoria duen edonork, eta zenbat fetxa beltz gogora ekarri! Judu eta palestinarren arteko terrorismoaren gainetik bakea lortzen ari diren honetan, nola ari gara kristauen artean bake demokratikoaren izenean, eta harrokeriaz, gorrotoaren hazi berriak ereiten?! Bake orekatu eta zabalaren beharrean gaude.